

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2022ko urtarrilaren 18ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2022 Erabakia, urtarrilaren 18koa. Onespena ematea Fundación Gasteiz, Araba Mobility Lab Fundazioa eta haren estatutu arautzaileak eratzeari.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2022 Erabakia, urtarrilaren 18koa. Onestea baldintza teknikoen agirian jasotzen diren Arabako Foru Aldundiaren menpeko eraikin eta instalazioetako garbiketa zerbitzua prozedura irekiaren bidez kontratatzeko espedientea. Aurrekontua: 3.193.614,01 euro; gauzatze epea: 2022ko apirilaren 3tik 2023ko abenduaren 31ra arte.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2022 Erabakia, urtarrilaren 18koa. Behin betiko onestea Artziniegako udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzorua eta hiri ondasun higiezinaren balioztapen txostena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 7/2022 Erabakia, urtarrilaren 18koa. Onespena ematea Done-miliagako udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzorua eta hiri ondasun higiezinaren balioztapen txostenaren aldatetari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2022 Erabakia, urtarrilaren 18koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko Ondasun Higiezinaren Katastroa etengabe eguneratzeko zerbitzua prozedura irekiaren bidez kontratatzeko espedientea. Aurrekontua: 3.030.000,00 euro; gauzatze epea: bi urte.

Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2022 Erabakia, urtarrilaren 18koa. Onespena ematea gastua xedatzeko fasean jartzeari Arabako Batzar Nagusien 2022ko funtzionamendurako partida.

Foru Gobernu Kontseiluaren 10/2022 Erabakia, urtarrilaren 18koa. Onespena ematea "Erakunde konpromisoak" izeneko aurrekontu partidak "baimendua eta xedatua" fasean jartzen dituen espedienteari.

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2022 Erabakia, urtarrilaren 18koa. Funts bat eratzea 2022. urterako Gazteriaren Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzu publikoak modernizatu eta arrazionalizatzeko eta bertako langileen produktibitatea hobetzeko.